



[ISABEL MANCERO BALDA]

# «Tenporetan ez dut baterere sinesten»

**Joxe Kruz Sarasola**

**Aizpea Amas** Errenteria-Orereta

Ez da eguraldia leial jarraitzen duenetakoa, baratzeko kontuak esku artean ez baditu. Baina bere plubimetroarekin hilean zenbat euri egin duen zehatz-mehatz neurtzen du.

Telebistako eguraldi emaileei entzun baino, nahiago du ilargiaren seinaleei begiratu bere baratzean aritzeko. Joxe Kruz Sarasola errenteriarrak ez ditu tenporak gustuko, zentzu erlijiosoak dutelako.

**Noiztik ari zara euria biltzen?**

Duela bost bat urtetik. Plubimetro bat oparitu zidaten, eta baratzean jarri nuen. Elkarrizketa bat egin zidaten HIRZA-n, eta geroztik uraren datuak ematen dizkiet.

**Nork oparitu zizun?**

Lagun batek. Pekin lantegia izan zen tokian plubimetro bat zegoen jarrita, Arra-

mendiko bide horretan, eta itxi egin zuten lantegia. Gero okupak sartu ziren. Lagun bati plubimetroa gustatu, eta egun batean hartu egin zuen, 'bestela okupek txikitu egingo zuten eta'. Harturakoa, niri oparitu zidan.

**Non biltzen duzu euria?**

Oiartzunen. Pikoketara iritsi aurretik borra bat daukat. Nire alaba eta bere semea han bizi dira, eta ni astean hiru-lau aldiz jotzen naiz eta ura baldin badago hartu egiten dut. Gero kalkulua egin behar izaten da. Plubimetroaren potoak 200 zentimetro koadroko azalera dauka. Hori 50 bider batuta ateratzen da metro koadroa, eta 10.000 zentimetro ateratzen dira, metro koadroak dauzkanak.

**Euria biltzeaz gain, eguraldia jarraitzen duzu?**

Baratzea dudalako jarraitzen dut, baina ni ez naiz iaioa horretan. Ilargiari-eta begiratzeko diet haziak ereiteko...

**Eta tenporak?**

Tenporetan ez dut baterere sinesten. Tenporak nondik datozen jakitea interesgarria da. Euskal Herrian tribuak bizi ziren aintzinean, eta lanak egiteko elkartu egiten ziren. Noiz elkartzen ziren? 'Gaur dago denbora ona lurra iraultzeko' esan, eta elkarrekin joaten ziren lurra iraultzera;

'orain atxurrean ibiltzeko dago denbora ona', esan, eta atxurretara joaten ziren. Denbora ona, denbora ona, latineko tenpora bihurtu zen. Erlijioa sartu zenean baliatu zuten euskal ohiturak kristau bihurtzeko. Pello Zabala frailea da eta zer esan behar du harek! Zer esan nahi du, eguzkiak badakiela hemen errosarioa noiz erreztzen den?

**Duela bost urte hasi zinen plubimetroarekin, baina gogoratzen al duzu urteren bat bereziki euritsua izan zenik?**

Plubimetroa jarriz geroztik ez ditut datuak begiratzen, apuntatuta daudelako. Beharrezkoa baldin bada, koadernoan begiratzen ditut eta kitto. Baina hemen, Errenterian, uholde asko ezagutu ditut. Ertzain Etxea dagoen tokitik Fanderiara joanda, Gabierrota urak harrapatu zuen. Topoko trenbidearen malkarretik Renfeko terrapleneraino dena ura zen, eta Santa Klarako zubia tapatuta geratu zen belar metekin. Zuhaitzak eta txerri bat edo beste baserrietatik ekarri zituen ibaiak. Baina segituan pasatu zen. Errenteriako ibaiak oso bide laburra du (zortzi kilometro hasieratik, eta hasieran ia ez du euririk). Dena den, Aiako Harritik eta Biandizetik euri zaparrada etortzen bada ibaia ito egiten da, baina euria geratzen baldin bada segituan jaisten da uraren maila. Baina bitartean kalte handiak eragiten zituen. Gainera, ez zegoen kanalizatuta, ibaia ere oso ezberdina zen...

**Kanalizatu ondoren, izan da uholderik?**

Ez, akabo, bukatu ziren. Foru plazan izan dira, baina arrazoi batengatik. Orain kaleak eta bideak igo egin dituzte, metro erdi bat edo. Baina lehen, itsasgorarekin, estoldetatik ura igotzen zen. Orain Huerta frutadenda dagoen tokian burdindegia eduki nuen, eta baldosetatik ura igo egiten zen, 25 zentimetroko altuerara.

**Gogoratzen duzu urteren bat bereziki lehorra?**

Ez. Etxean tarteka zerbait aditu nuen, baina ez dut gogoratzen zein urte izan zen lehorrena. Gogoratzen dut uholdeak Errenterian izan zirenean lau urte nituela, eta Madalen kalean, bi metro pasatxoko ura egon zela. Gabierrotan bizi nintzen, Diputazioaren etxetik honantz. Hor etxe txiki bat zegoen eta ni han jaio nintzen. Gure gurasoek pattarra egiten zuten eta barrika hutsak izaten genituen: urarengatik, behin batean, sukaldeko pareta jo zuten barrika horiek. Etxeko atzeko aldetik ihes egin genuen, leihotik; haurrak ginen, eta Diputazioko etxera joan ginen. Baina gutia urez estali zen eta lantxekin ibili behar izan zuten. Bestalde, orduan tranbia ibiltzen zen Errenteriatik Donostiara, eta batean tranbia hori urak eramane zuen. Gure auzoko andre bat ere urak hartu zuen.